

LOBBY-EN GARRANTZIAZ

Gatazka politiko bat ulertzeko, eta are gehiago bertako agente gisa era egokian jokatu ahal izateko, nazio eta klase interesak, intereson ordezkari ezberdinen arteko indar koerlazioa eta gisa honetako nozio *politikoak* dira erabili beharrekoak. Egia tribiala da hau; baina gogoratu beharrekoa, sobrare, fenomeno politikoen interpretazio *moral*a nagusitzen ari zaigun gizarte txiki honetan. Hartu adibide bat: IRaren su-etena.

Hemengo prentsak bereziki bi faktore aipatu ditu gertakizun garrantzitsu honen azalpenerako: bat, Ipar Irlandako errepublikanoen arteko akordioa ekarri duten Hume-Adams elkarrizketak; eta bi, (Hego) Irlandako gobernuaren politika aldaketa, hasteko, lehen emaitz ikusgarri gisa, London-go gobernuarekin Downing Street-eko deklarazioaren sinadura ekarri zuena.

Euskal Herriko politikoez egin dizkiguten “analisiak” lotsagarriak izan dira gutxienik. Tontoak dira ala tontotzat hartzen gaituzte (biak, bestela). Batzuen arabera, IRAk ikasi omen du, borroka armatua ez, borroka politikoa dela tresnarik onena. Beste batzuren arabera, Hume-k eta Reynolds-ek azkenean ikusi omen dute Sinn Fein-ekin batera London-go gobernuari egin behar diotela aurre, horixe dela biderik zintzoena. Hume euskaraz Arzalluz ala Garaikoetxea esaten ote den galdetzen dute batzuk. Gerry Adams-en reenkarnazioa Jon Idigoras dela baieztatzen dute beste batzuk. Mesedez!

Ipar Irlandako kasutik lezioak atera nahi dituztenek hobe lukete Erresuma Batuko prentsak behintzat erabakiortzat aurkeztu duen hirugarren faktore baten eragina aztertzea: Estatu Batuetako administrazioaren papera. Mundu osoko gatazka haundien konponbideak neurri haundi batean maila internazionalen erabakitzen direla gero eta garbiago dago. Hau ona ala txarra den planteatzeak ez du zentzurik. Hala da, eta kitto. Konponbidean jarritako gatazken eredutzat jartzen dituzten Hego Afrika, Palestina eta Ipar Irlandaren kasuetan, besteak beste, begibistakoa da.

Estatu Batuetako gobernuak London-go gobernuarengan, Dublin-goarengan eta baita Ipar Irlandako sektore errepublikano nahiz unionistengan egindako presioa kontutan hartu gabe, nekeza da (oraindik edukin zehatzetan ezagutzen ez den) Hume-Adams akordioa gertatutakoaren eragile nagusia izan dela uste izatea. Administrazio iparamerrikarraren presio honen arrazoia, berriz, estatu horren izaera santuan (“demokraziaren eredu”) ala diabolikoan (“inperialismoa”)

aurki lezakete gure analistek. Irlandarren lobby estatubatuarraren alde egin dut nik apostu. 44 miloi omen dira “Irish-American”-ak: Clinton-en alderdi demokrataren oinarri elektoraletako bat, hain zuzen, Boston, Chicago, New York, Philadelphia, Baltimore eta San Francisco-n bereziki biltzen dena. Irlandarren lobby-aren indarrak esplika ditzake britainiarrekiko harreman pribilegiatuak arriskuan jarritz amerikarrek hartu dituzten iniziatibak. Gogoan izan Estatu Batuetako azken hauteskundetan errepublikanoen aldera mugitu zirela botu irish-amerikar asko.

Ez dirudi euskal abertzaleek euskal lobby-rik sortzeko urratsik eman dutenik. Ez dirudi Ipar nahiz Hegoko “Basque-American”-ak, esate baterako, kontinente horretako estatueta kanpo politiketan eraginik izango duten presio-taldetan eratzeko saio seriorik egin denik. Bestalde, alderdi politiko abertzaleen nazioarteko politikak (dituztenean!) printzipiozko sinpatia ideologikoez gidatzen dituzten heinean ezinezkoa izango da. Alderdiok kanpoko alderdiekin dituzten harreman urriak ere berehalako interes partidisten arabera erabiltzen badira ere ez dago zer eginik. Jeltzaleek EE.BB.-etako errepublikanoekin nahiz kristaudemokrata europarrekin dituzten harremanek, EAK Parlamentu europarreko *Ortzadar* taldearekin, edo HBk Sinn Fein-ekin dituztenek ez dute ezer balio euskal lobby indartsu batek suposatuko lukeenaren ondoan. Egia da zaila dela estaturik gabe nazioarteko eragin-talde iraunkorrik eratzzea; zailago, ordea, honelakorik gabe inoiz estatua lortzea. Honi buruz galdegin beharko lukete aholku euskal abertzaleen ordezkariak Hego Afrika, Irlanda, Palestina edo/ta Israel-era bakebideez informazioa jasotzera doazenean.

Aurreko hilean EE.BB. etara egindako bidai baten ondoren, “American-Basque Foundation” izenekoa iragarri du Ardanzak. Euskal lobby-a (errepublikanoez gain, demokratik eta beste tartean direla) sortzeko projektua izango al da? Ala Komunitate Autonomoaren zor publikoa eroso xamar kolokatzeko tresna hutsa?

Hasi bezala, tribialitate batekin bukatuko dut. Interes erabat antagonikoak dituzten ajenteen arteko gatazkak batek bestea suntsituz bakarrik desagertarazi daitezke. Hau ezinezkoa bada, indar ezberdinen arteko oreka bakarrik bila daiteke. Oreka puntua(k) lortzeko, baina, indarra egin behar da. Bertako nahiz nazioarteko politikan *indarra* da nozio nagusia, ez moralak erregulatutako borondatea.

Kepa Korta
Irakaslea